

Eva Ferreirari

buruz



Barakaldon jaioa, Eva Ferreira Matematikan lizentziatua da UPV/EHUn, Probabilitate eta Estatistikako masterra New York Unibertsitateko Courant institutuan burutu zuen eta Ekonomiako doktore titulua UPV/EHUn lortu zuen. Ekonomia Aplikatuan katedraduna da 2005etik.

2021eko urtarrilaz geroztik UPV/EHUko errektorea da, kudeaketa-jarduera zabala eginez, eta askotariko barne-eta kanpo-akordioak lortu ditu. Horien emaitza nagusiak [hemen](#) azter daitezke.

Errektore izan aurretik, EHUko Ekonomia Gaietako eta Ikasketa Antolaketako errektoreorde (2004-2008), unibertsitate bereko idazkari nagusi (2009-2012) eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendari (Unibasq, 2015-2019) izan da.

Oinarrizko ikerketa ildoak, hainbat eremutan aplikatzen diren probabilitate eta estatistika metodoak dira, hala nola sendagaiek medikuntzan dituzten efektuen analisisan, finantzen arrisku sistemikoaren ebaluazioan

edo hautapen-alborapenak kristalezko sabai efektuan duen eraginean. Proiektu eta ikerketa-talde lehiakorak zuzendu ditu urte luzez, eta dozenaka artikulu argitaratu ditu nazioarteko erreferentziazko aldizkarietan. Ikerketarako 5 seiurteko eta transferentziarako bat ditu, bai eta Docentiaz-en ebaluazio positiboa ere.

Eva Ferreirak ikerketa-egonaldiak egin ditu irakasle gonbidatu gisa Bath, Giessen edo Freiburg bezalako Europako unibertsitateetan, eta hitzaldi gonbidatuak eman ditu Brasilgo Sao Pauloko Unibertsitatean, AEBetako Louisiana State Unibertsitatean edo Indiako Ahmedabad unibertsitatean. Bost doktore-tesi zuzendu ditu, nazioarteko eta euskarazko tesiak barne.

Irakaskuntzarako bokazio handia izanik, kudeaketa-lanak egin arren, ikasturte akademiko guztietan eman ditu eskolak unibertsitatean sartu zenetik, eta, azken urteotan, zientzia-dibulgazioa sustatu du hainbat foro eta formatutan.

Eva Ferreirak pertsona idealistatzat du bere burua, oinak lurrean dituen arren. Berritzailea, eraginkorra eta erabakitzailea da, eta, aldi berean, enpatikoa eta solidarioa; aukera-berdintasunaren eta ezberdintasun sozialak zuzentzeko neurrien beharraren defendatzailea; argia eta nekazina bada ere, bere posizioetan badaki jarrera gerturatzeak baliogarriak direla akordio handiak lortzeko garaian.

Garapen Iraunkorreko Helburuekin kontzientziatuta, unibertsitate-jarduera osoaren parte izatea lortu du, euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko 18. GJH barne.

Bere jatorri xumeaz eta familiaz harro, bi seme-alaben ama da, eta desberdinen arteko elkarriketekin gozatzen du. Adiskidetasuna letra larriz balioesten du, aisialdian dantza egiten du, eta mendian edo itsasoan ibiltzea ditu maite.